

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Lehen hiriak sortu ziren jendea bateratzeko eta bakoitza bere herrian bizi ordez, hirira joan zen jendearekin egoteko. Horretarako, auzoko dendak sortu ziren eta jendeak, hirira joatean, aprobetxatzen zuen erosketak egiteko. Baina gaur egungo aurrerapenak direla eta, hirietako hasierako helburu hori galdu da. Adibidez, amazon, supermerkatu industrialak (Merkadona, Lidel...) edo merkataritza guneak sortu direnetik, jendea ez doa auzoko dendetara. Horregatik, ixteko zorian daude, eta gure helburua denda txikiak bizirik irautea eta merkataritza txikiak babestea da.

Supermerkatuak, amazon eta horrelakoak merkeagoak eta erabiltzeko errezagoak direla dakigu. Baina auzoko dendak irautea gure bizitzarako oso garrantzitsua da, izan ere, bertako familia askoren sustentu dira. Horregatik gure aplikazioarekin denda txikietan erosteko erraztasunak jartzen ditugu eta horrela jendeak gehiago erosiko du denda txikietan, handietan erosi beharrean. Hau lortzeko orain azalduko ditugun ideiak jasota egongo dira gure ekosistema digitalean.

Zerbitzu eta aukera ezberdinak eskeintzen dituen merkataritza digitala sortu dugu, beti merkataritza txikiak lagundu eta babestu nahiean. Beraien negozioak ezagutaraztea, auzoko dendei bultzadaxo bat eman eta tokiko kontsumoa (0 km-koa) sustatzea dugu helburu. Izan ere, kontsumo jasangarriaren aldeko apostua egiten dugu eta horretaz gain tokian tokiko ekonomiaren iraunkortasuna bermatu nahi dugu.

Antzeko beste plataformetatik bereizten gaituena denda txikiekin daukagun harremana da; harreman zuzena, bitartekaritzarik gabekoa, pertsonalizatua eta kalitatezkoa. Gainera, erabiltzaileak nahi duen produktua modu erraz eta erosoan topatu dezake gure aplikazioan. Online salmenta aukera dugu eta etxera eramateko garraioa ere. Garraioa, ingurunea zaintzen du, gehienetan bizikletaz delako (banaketa euskal herriko hirietan bada). Halaber, denden jabeentzako zerbitzu berezia dago. Bertan, lekuko hornitzaileen informazioa jasotzen da eta erreztasun izugarria da denden jabeentzat. Gainaera, azoka bat antolatzen dugu, non denda guztiek bere produktuak saltzeko aukera daukaten. Azoka horretan jendea joan daiteke produktuak ikustera, erostera edota frogatzera. Bestalde, fidelizazio txartela dutenek hainbat zozketetan parte hartzeko aukera dute denda horietako produktuak irabazteko. Gainera, premium izateko aukera egongo da eta horrek hainbat abantailak izango ditu. Eta amaitzeko, aplikazioan rutak sortzeko aukera dago; aplikazioari esan besterik ez diozu erosi behar duzuna, eta aplikazioak zuzenean ibilbideak egiten dizkizu erosi behar dituzun produktuak denda txikietan erosi ditzazun eta ez dezazun supermerkatu batera joan beharrik. Aplikazioak inguruan dituzun dendak bilatzen ditu, erosketak egiteko ahalik eta denbora gutxien igaro dezazun.

